

MARRAZKETA ETA PINTURA

Jarduera

Proportzioak, koloreak eta adierazpen sortzailea ikastea.

Deskribapena

Marraskia pinturaren oinarria da, figuraziotik abstrakziora. Artistak aukeratzen duen edozein formatan, argiak eta itzalak ahokatzeko eta ikusteko trazua eta gaitasuna izan beharko ditu artistak. Behin marrazki-oinarri bat eskuratuta, kolorera igaroko gara.

Helburuak

- Ikaslea marrazkiaren eta pinturaren munduan sartzea.
- Ikaslearen irudimen-gaitasuna eta diziplina garatzea.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Herritarren kultur kezkak asetzea.

Programa

1. Hiruhilekoa.

- Materiala: material desberdinek eskaintzen dizkiguten aukerak aztertuko ditugu, hala nola grafitoa, ikatz-ziria, eta euskarri desberdinak.
- Irudia gure formatuan nola egokitzen den ikastea: nola neurtzen eta alderatzen ditugun proportzioak eta nola eramaten dugun gure euskarrira.
- Marrazteko baliabideak: espazio negatiboak, irudizko lerroak, bertikala eta horizontala marrazketako baliabide gisa.

2. Hiruhilekoa

- Kolora: zirkulu kromatikoak, kolore hotz eta beroak, kolore osagarriak eta paleta hautsia.
- Marrazkiari eta koloreari buruz aurretik azaldutakoari aplikatutako ariketak.

3. Hiruhilekoa

- Proposamen pertsonalak: oinarrizko nozioak ikasi eta praktikatu ondoren, ikasleak bere gustuko zerbait proposatu ahal izango du irakaslearen laguntzarekin.

Irakaslea

- Prokulturrako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Helduak

Ikasleak eraman beharreko materiala

Arkatzak, ikatza eta papera.

Aukeratutako teknikaren araberrako pinturrak, pintzellak eta euskarria (ez dira beharrezkoak lehen hiru hilekoan).